


Garazin egin zuen jendaurrerako itzulia



Mikel Antza

MIKEL LABOA, DENBORA GALDUAREN BILA

ARGIAren alde Ormaiztegin egin zen jaialdia esan zigun Laboak izan zela azkena joan den ekainaren 33an Donibane Garazin eskeinitako kantaldia arte. Tartean disko bikoitz bat, «Lau/Bost», baina diskoaren aurkezpenik ez. Hiru bat urte beranduago igo da ostera taula gainera, bere ahotsa, kitarra eta Inaki Salbador pianojolearen laguntzarekin.

Mikel Laboaren itzulera askotan iragarri izan da, prestatzen ari zela, bazetorrela; jaialdi antolatzaile asko ibili da Laboaren atzetik azkenaldian, eta itzuli denean ere, nahiko isilpean mantendu nahi izan du taularatze berri hau. Egunkarietakoak jakin zuten aurrez eta nolabaiteko propagandaxoa egin zuten, hala ere ez zen jende mordo haundia bildu Garaziko frontoiera. Neurrian bete zen, gustoko kantaldi bat entzuteko haina, denak Laboazale porrokatuak, Iparralde eta Hegoaldekoak.

Jaialdira hurbildu zen jendeak, «ea zer berririk prestatu digun Mikelek» pentsa zezakeen, kantaldia hasi aurretik itxaron behar izan genuen tartean (aurkezleak adierazi zuen legez, ez zen antolatzaileen errua izan eguzkiarena baizik, ilundu arte ez bait zegoen hasierik, eta arrazoi zuten argiak izan bait ziren jaialdiaren oinarri sendoetarikoa bat).


Mikel Laboak ez zuen kanta berri askorik eskeini, kontuan izan behar bait da diskoan agertzen diren zenbait ez zituela sekulan kantatu jendaurrean, Xalbadorren hitzekin egindako «Herria eta hizkuntza» adibidez. Txalo zaparrada baten pean hasi zen «Bentatik nator, bentara noa» kantatuz, ilea zuri, arropak urdin, behatzak urduri. Eta hasieratik bertatik Mikelen ahotsaren aztikeri estrainoa, kitarren berezitasuna, edozein madalenak baino indar gehiagorekin, esne erreberoaren zaporea, euskal kantagintzan bakarra den kantari baten artea.

Inaki Salbadorren lana, eskusoi-nuarekin, pianoarekin eta sintetizagailuarekin, oso egokia da Laboaren molderako; «Askatuko zaituen zai bazaude, zaude lasai...» benetan zirrargarria izan zen, honetan sintetizagailuaren erabilpena ezin hobea zelarrik. Kantaldia aurrera zihoan heinean Mikel Laboa lasaitzen joan zen, eta giroa berotzen. Kanta berrien artean Joseba Sarrionandiaren koplak batzuekin egindakoa, musikatze aproposarekin. Lehen zatia, «Lekeitio 5: Komunikazio/Inkomunikazio»rekin bukatu zuen, bertan Laboa ant-


zerkigizon eta esperimentuzalea nagusitu zen, irria eraginez eta norbera pentsamenduetan murgilaraziz.

Atsedena ondoren, Arza anaiek txalaparta saio gogoangarria eskeini zuten. Hasierako erritmo hautsitik, «tturrukuttun» hori zela medio, erritmo sinestezinetara iritsi ziren, itzal-dantza liluragarria. Josantonek hasieran irakurritako testuak definitzen zuen txalapartaren filosofia antzeko bat, baina énbora etzan horiek eta makil tenteek sortutako zamalkada eroak aintzinako ohiartzunez bete zituen frontoieko hormak. Berriro ere Mikel Laboa, goitik beherako argi gorri baten pean, «Izarren hautsa»ren indarra, Xabier Leteren poema esanguratsua, giro hartan, une hartan, are esanguratsuagoa.

Berrestreinaldi honen bukaera aldean nekatua zegoela nabari zitzaion Mikeli, baina jendeak gehiago nahi zuen, eta bisetan «Hegoak ebaki banizkio» eta «Egunda Santimamiña»



Mikel Antza



Mikel Antza

kantatu zituen, orain bertaratu ziren guztien laguntzaz.

Garai bateko oihartzunak, betirako izango diren kanta, jadanik «herrikoi»ak direnak, Laboak kantatzen di-

tuen beste hainbat «herrikoi»ekin batera, kanta guztiek bait dute bere sortzailea, denboraren zurrunbiloan galduz nagusitzen dena.

Mikel ANTZA

(Garazin Mikel Laboak kantatu zitueneko kanta berrietako bat hau duzue, Joseba Sarrionandiaren «Sorterriko Koplak»)

SORTERRIKO KOPLAK

Oihaneko pagoak blai
aideratuz hiru elai.
Ostadarraren harian dira
hirurak pausatu nahi.

Larrosak dira gorriak
edo bestelan xuriak.
Hagitez dira ederragoak
neskatilaren irriak.

Maldan behera urratsa
betiko bidean latsa.
Hodei ilunak gaua belzten du
udazkena da ez bedatsa.

Usapalak ostantzean
huts bat badut bihotzean.
Zatoz maitea gure etxera
dostatzerara arratsean.

Joseba SARRIONANDIA